

[EDICIÓN IMPRESA] ■ **COSTA UROLA**

Gipuzkoa  
San Sebastián

- Ediciones
- Al día
  - Opinión
  - Política
  - Deportes
  - Economía
  - Mundo
  - Cultura
  - Gente
  - TV
  - Contraportada
  - De un vistazo
  - Efemérides

[COLUMNISTAS]

Seleccione...

**USURBIL**

**USURBIL / Sorospen eta sorosle ikastaroa antolatu du DYak Usurbilen**

**Martxoaren 13tik 31 bitartean Udarregin izango den ikastaro hau herritar guztiei zuzenduta dago**

JOSU ARANBERRI/

USURBIL. DV. Datorren martxoaren 13an, Usurbilen Sorosle eta Lehen Sorospen ikastaro berri bati hasiera emango dio DYA Gipuzkoak. Ikastaro hau biztanlego osoari irekia egongo da, nahi duten guztientzat alegia. Ikastaroaren iraupena hiru astekoa izango da, martxoaren 31 bitartekoa, arratsaldeko 7:30etatik 9:30etara, eta asteleheneetik ostiralera izango dira ikastaroko klaseak. Ikastaroa, Udarregi ikastolan izango da, Gernika ibilbidea, 11 - Usurbil. Ikastaroko ikasgaiak euskaraz emango dira. Ikastaroak, kontuan izanik ez dela beharrezkoa aurrez ezagupenik izatea, egunerokotasunean aurki ditzakegun arrisku egoerei nola erantzun irakatsiko du. Bihotz eta birika susperketa, zauriak, hausdurak, erredurak Ezagupen oso arruntak baina laguntza asko eman dezaketen hauek, oso modu eroso eta atseginean erakusten dira eta teoria eta praktika alderdiak ikutuaz.



Egunerokotasunean aurki daitezkeen arrisku egoerei nola erantzun irakatsiko du DYak. [JOSU ARANBERRI]

 Imprimir  Enviar

- Film laburren proiektzioa ostegunean Sutegin

Publicidad

Bestalde, ikastaro amaierako frogak gainditzen dituenak, DYA Gipuzkoak eskaintzen duen Sorosle Tituloa eskuratzeko aukera izango du. Horrez gain, ikastaro hau gainditzen duten guztiek, EHUra 2 kreditu jaso ahal izango dituzte. Matrikularen kostea, ikastarorako txostena barne delarik 75 eurokoa da. Ikasle kopurua mugatua da, ematen den ikastaroaren kalitatea bermatzearren. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, 943-46.46.22 telefonora deitu dezakezue.

Odol ematea bihar

Bestalde, bihar arratsaldean odola emateko aukera berri bat izango da. Arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara herriko Osasun Zentrora gerturatu daitezke hain garrantzitsua den odola eman nahi duten guztiak.

Herriko Odol Emaileen Elkarteak odola ematea egokitzen zaien odol emaile zaharrei deialdia luzatu die dagoeneko, baina beste herritarrek ere gerturatu daitezke Osasun Zentrora. «Hainbat kideei zuzenean luzatzen diegu abisoa, emateko txanda dutelako. Baina zu odol emaile ez ba zara, edo lehen emaile izan bazara, har ezazu zuretzat dei hau».

Osasun arazorik ez edukitzea eta 18 eta 65 urte arteko adina edukitzea dira baldintza nagusiak. Emanaldi hasieran mediku batek egiten du oinarritzko azterketa, eta kezka bat izanez gero, berak argitzen du guztia.

Denbora luzean jan gabe egonda Odola ematera etortzea ez da komeni, hobe da bi edo hiru ordu lehenago zerbait arina jatea. Beraz odola eman nahi duten guztiek badakite bihar non duten hitzordua.

Subir